



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 17a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzekoa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).
- Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako zenbait ikastetxetan neurri batzuk aplikatu ditzan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez ditzan. Erretiratutako mozioa (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, medikamentuen erabilera arrazionalerako aplikatzen den politikari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginia (11. or.).

- Galdera, 2002rako farmazia gastua hornitzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, Reina Sofía ospitalean ematen diren kimioterapia tratamenduek duten kostu zehatzari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, Reina Sofía ospitalean kimioterapia tratamenduak behar dituzten gaixoei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31n haren zerbitzu-
an zeuden funtzionarioen zerrenda (14. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru
Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa (16. or.).

I SAILA:**Parlamentuko Jarduera:**

- 2002ko abenduan egindako bilerak (21. or.).
- 2002ko abenduan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen sustapena objektibotasun, antzinateasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraikiz egin behar da. Lanpostuan etekin gehien ematen duena sustatu behar delako ideia egokia eta are desiragarria ere iruditzen zaigu; kontua da polizia kidegoetan hori nola betearazi.

Egungo legeriaren arabera, kaporal eta inspektoreorde lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan, sustapen prozedurei begira lehiaketetako baremoetan ezarritako puntuazioaren ehuneko 50 egin beharko luke polizia kidegoko funtzionario bakoitzak bere lanpostuan duen errendimenduari balioespen ustez objektiboak.

Gure ustez, orain arte ez da aurkitu formularik polizia kidegoko funtzionario bakoitzak bere lanpostuan duen errendimenduari balioespen objektiboak egiteko.

Horrenbestez, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzeko proposamena onets dezan eskatzen diogu Parlamentuko osoko bilkurari.

1. artikulua. 35. artikulua onetsu berria.

35. artikulua

1. Polizia kidegoetako lanpostu hutsak polizia kidegoetan sartzeko hautaketa probak eginez

beteko dira. Sartzeko prozeduran honako proba baztertzaila hauek eginen dira:

- a) Egoera fisikoaren probak
- b) Kultura orokorreko probak, eskatutako ikasketak mailarekin bat heldu direnak.
- c) Proba psiko-teknikoak izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesiografikoari egokitzen zaizkion neurtzeko.
- d) Proba medikoak
- e) Prestakuntza ikastaroa.

Nafarroako Gobernuak udaltzaingoen kidegoetan sartzeko deialdia onartu eta hautapen prozedura eginen du, haien borondatez hala eskatzen dioten toki entitateen kasuan.

2. Kaporala eta inspektoreordearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheargoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa baten bidez. Oposizio-lehiaketa horretan merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheargokoan gutxienez ere bi urteko antzinasuna izatea eskatuko da.

3. Sarjentu eta inspektore lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheargoko

lanpostutik eta oposizio-lehiaketa baten bidez. Oposizio-lehiaketa horretan merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheargokoan bi urteko antzinasuna, gutxienez, eta lanpostuari dagokion titulu akademikoa izatea eskatuko da. Titulu akademikoa ez edukitzea lanpostu zuzenki beheargokoan bost urteko antzinasuna izatearekin bete ahalko da.

4. Arestiko bi idatz-zatietan aipatzen diren lanpostuak betetzeko deialdietan polizia kidego bereko kideentzako barne igoerako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat deialdiko gainontzeko lanpostuekin, Nafarroako polizia kidego guztietako kideei irekia, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Txanda ireki horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati honetan ezarritako portzentajea aplikatzeko, hiru lanpostu hutsetatik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa."

2. artikulua. 43. artikulua testu berria.

43. artikulua

1. Polizia kidegoetako destinoak kasuan kasuko erregelamendu organikoan ezarritakoari jarraituz beteko dira.

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioen eskubide pasiboari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkarguena Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko urriaren 15eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu eta 2002ko

azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu eta 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2003ko martxoaren 7ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Tal-

deak aurkeztu eta 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari

buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Industria, Lan, Merkataritza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2003ko martxoaren 7ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Lege proposamenari, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoari, hain zuzen, aurkezturiko zuzenketak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proposamenaren artikulua bakarria ondoko testuaren bidez ordeztuko zuzenketa. Testu horrek Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria eta xedapen iragankor bakarria indargabetzen ditu."

"Artikulu bakarria. 2001/2002 ikasturtearen hasieran baimenik izan gabe jardunean ziren eremu ez-euskalduneko ikastolak, euren egoera legeria indardunera egokitzen den bitartean,

2000ko Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorreko buruzko Foru Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako araubide berezi eta iragankorrari jarraikiz finantzatuko dira 2002ko urtarrietik 2004ko abuztuaren 31ra arte, hezkuntza maila ezberdinetarako indarrean diren moduluak gaurkotuta."

Zioak: Eremu ez-euskalduneko ikastola horien arauzkotze- eta legezkatze-prozesua, zeina 2004ko abuztuan bukatuko bailitzateke, ahalbidetzea, 2000rako aurrekontuei buruzko legean jatorria duen finantzaketa-sistema mantenduz, iragankor moduan.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak."

Zioak: Izaera horretako xedapen bat sartzea arau honek indarra duela argitzeko.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako zenbait ikastetxetan neurri batzuk aplikatzeko

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako zenbait ikastetxetan neurri batzuk aplikatzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierrak, ondoko mozioa tramitatzea eskatzen du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan erabaki proposamen bat onetsi zen haur hezkuntzako lehen zikloa lehenbailehen arautu eta hezkuntza publikoaren eskaintza behar bestekoa garatu beharrez, haur eskolen inguruan gizartearen dagoen eskariari erantzuteko, aukera berdintasunaren eta desberdintasunen –pertsonalak, familia-koak eta gizarte arlokoak– konpentsazioaren printzipioetatik abiatuz.

Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren aldeko plataformarekin egindako lan bileran –irakaskuntzako sindikatuek, gurasoen elkarteek, NUPeko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak eta haur eskoletako ordezkari ugari osatzen dute plataforma–, agerian utzi zuten Nafarroako

Gobernuak ez duela sortu eta ez dela sortzen ari gutxieneko kalitatea errespetatzen duten haur eskolen sare behar bestekorik, eta ez duela, ondorioz, irekita dauden Otik 3 urtera bitarteko zentroak kontrolatzeko ezer egin, LOGSEk ezarritako gutxieneko kalitate baldintzak bete ditzaten behartzearen. Aurkeztutako agirian plataformak dioenez, "Atzeraka goaz nabarmen, Nafarroako Gobernuak hezkuntza eta laguntza ikastetxeez hitz egiten jarraitzen baitu; izan ere, LOGSEk bazter utzia zuen kontzeptu hori, baina orain, berreskuratu egin nahi da irakaskuntzaren kalitateari buruzko lege organikoaren aurreproiektuaren bidez".

Orobat nabarmendu zuten ezen hezkuntzako profesionalek nahiz arloan inplikaturiko taldeek aspaldian gainditu dituztela zaintza eta babes planteamenduak, eta horien ordean pedagogia eta hezkuntza irizpide egokiagoen arabera eskola ereduak jorratzen dutela ikerkuntza lanen, curriculum erreformen eta izandako esperientzien ondorioz. Horrenbestez, uste dute hezkuntza jaiotzarekin hasten dela eta haur hezkuntza Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren esku egon beharren Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren esku egon behar duela.

CIESek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuentzat eginiko inkesta baten arabera, tutore gehienek –% 72,2k– uste dute Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren beharrezkoa dela hezkuntza zentro bat hautatzea.

Inkesta horretan bertan adierazten da 7.129 plazako eskaria dagoela egun, eta eskaintza 5.407 plazakoa dela. Azken horiei dagokienez, sare publikoak baino 446 plaza gehiago eskaintzen ditu sare pribatuak. Horren ondorioa da LOGSEk ezarritako gutxieneko kalitate baldintzak betetzen ez direla.

Egoera hori izaki, abuztuaren 2an Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako 3086/2001 ebazpenaren bidez –Toki entitateek sustaturiko Haur Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautzen ditu ebazpenak–, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen hiru urteko epean Nafarroako Foru Komunitate osoan Haur Hezkuntzako ikastetxeak irekitzea, baina horretarako aurrekontu aski jarri gabe; izan ere, ikasle bakoitzeko 4.000 euro emanen ditu, eta eskola publikoetako egungo kostuak halako bi egiten du.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua baldintza horietan ari da haur eskolen kudeaketa toki entitateei lagatzen; toki entitateek, berriz, udal finantzaketaren egungo arazoak direla medio, nekez egin diezaiokete aurre esleitu zaien kostuari, kalitatezko zerbitzua eskainiko badute. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditugu:

Nafarroako Parlamentuak aitortzen du haur orok duela, jaio den unetik aitzina, hezkuntza jasotzeko eskubidea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak foru lege bidez gara eta arau dezan Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0tik 3 urtera bitartekoa, LOGSEk agindutakoari eta hezkuntza etapa horren berezko ezaugarriek jarraituz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe guztiak kontrola ditzan, hiru urteko gehieneko epean bete ditzaten ikastetxe bat ireki eta irekita mantentzeko kasuan kasuko administrazio baimena lortze aldera LOGSEk ezarritako gutxienerako baldintza guztiak. Baldintza horiek ondokoa jaso beharko dute:

3.1. Ikastetxeak beste inork ez erabiltzeko lokaletan egotea ikastetxea, kanpotik sarbide independentea duela.

3.2. Unitate bakoitzeko sala bat izatea, ikaspostu bakoitzeko bi metro koadroko azalera eta, gutxienez ere, 30 metro koadrokoa. Haurrek atsedean hartzeko eta garbiketa, bainua eta bazkaria egiteko eremu berezituak izanen dituzte salek.

3.3. Sukaldea, eskolan janen diren janariak prestatzeko.

3.4. Erabilera anitzeko gela bat, 30 metro koadrokoa.

3.5. Jolastokia, 100 metro baino gutxiago izan ez duena.

3.6. Bainu osoa langileentzat.

3.7. Bulegoa eta bilera gela.

3.8. Aulkitxoak eta haur-kotxeak gordetzeko gela.

3.9. Europako Kontseiluko umeentzako arreta sareak, haurrentzako zerbitzuen kalitateari buruzko helburuen bidez, ondoko aholkuak ematen dituzten ratioei buruz:

– Heldu bat lau haurrendako, 12 hilabete baino txikiagoak badira.

– Heldu bat sei haurrendako, 12 eta 23 hilabete bitartekoak badira.

– Heldu bat zortzi haurrendako, 24 eta 35 hilabete bitartekoak badira.

3.11. Sukaldari bat.

3.12. Garbiketa eta sukaldeko laguntzaile bat 25 haurrendako.

3.13. Hezitzaileen titulazioak hezkuntza arlokoak baizik ez dira izanen.

3.14. Lan-astearen hamarrena emanen da, gutxienez ere, haurrik gabeko lanetan, prestakuntzan nahiz familiekiko harremanetan hain zuzen ere.

3.15. Langile guztiek jaso behar dute soldata duina, administrazio publikoetarako ezarritako lanbide-mailari dagokiona.

3.16. Ordezkapenak egiteko zerbitzu egokia beharko du egon ratioak mantentzeko.

3.17. Zerbitzuen erabakiak hartzeko prozesuek parte hartzaileak izan behar dute, lan horretan inplikaturik gurasoak ikastetxea kudeatzeko partaidetza organoen bidez.

3.18. Ikastetxe guztiek eskainiko dute 0tik 3 urtera bitarteko ziklo osoaren hezkuntza zerbitzua.

3.19. Gurasoek funts publikoekin finantzaturako zerbitzuak jasotzeko dirua jarri behar badute, haien ekarpenak ez du gairatuko familiako buruaren hileko dirusarreraren ehuneko 15, eta aintzat hartzekoak izanen dira per capita dirusarrerak, familiako kideen kopurua eta bestelako inguruabar garrantzizkoak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar adina plaza publiko eskaini eta finantza ditzan toki entitateekiko ituen bidez, haiek enpresa pribatuetara jo beharrik

gabe, Nafarroan lehen hezkuntzako lehen ziklorako dagoen egiazko eskaintza asetzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du euskaraz nahiz gaztelaniaz 0tik 3 urtera bitarteko plazen eskariari erantzun diezaion, bai eta gerta litezkeen hezkuntza premia bereziei ere.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Europako Kontseiluko umeentzako arreta sareak kalitate helburuak betetzearren markatutako joerari jarraitzeko konpromisoa har dezan (profesionalen prestakuntza, langileen lan baldintzak...).

Iruñean, 2003ko otsailaren 6an.

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez ditzen

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Ondoko mozioa atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez ditzen. Mozio hori 2003ko maiatzaren

27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, medikamentuen erabilera arrazionalerako aplikatzen den politikari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak medikamentuen erabilera arrazionalerako aplikatzen den politikari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Egunotan argitaratu denez, gure erkidegoaren farmazia-gastua handitu da, eta Nafarroa da,

Espainiako autonomia erkidegoen artean, 2002an igoera handiena izan duena, igoera aurreko urtean baino % 12,76 handiagoa izan baita, Espainiako batez bestekoaren arras goiti (% 9,89).

Gure ustez, berri hori txarra da Nafarroarentzat, egoera larrian uzten baikaitu. Hori dela-eta, haxe jakin nahi dugu:

1. Medikamentuak behar direnean erabiltzeko zer politika aplikatzen da Nafarroan? Zein dira emaitzak?

2. Osasun Departamentuaren ustez, beharrezkoa al da medikamentu generikoak sustatzea? Hala baldin bada, zer neurri aplikatzen ditu?

3. Aztertu al da preskripzioak printzipio aktibo-
ei jarraikiz egiteko eta, hala eginez gero, farmazia-
gastuan efizientzia handia lortze aldera medika-
mentu generikoak emateko sistema bat ezartzeko
aukera?

Iruñean, 2003ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, 2002rako farmazia gastua hornitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak 2002rako farmazia gastua hornitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Egunotan argitaratu denez, gure erkidegoaren farmazia-gastua handitu da, eta Nafarroa da, Espainiako autonomia erkidegoen artean, 2002an igoera handiena izan duena, igoera aurreko urte-

an baino % 12,76 handiagoa izan baita, Espainiako batez bestekoaren arras goiti (% 9,89).

Gure ustez, berri hori txarra da Nafarroarentzat, egoera larrian uzten baikaitu. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Farmazia gasturako zer aurreikuspen egin zuen 2002an Osasun Departamentuak?

2. Zein izan da egiazko farmazia gastua 2002an? Zein izan da, hortaz, aurrekontu desbideraketa?

3. Farmazia gastuaren igoera horren aurrean, zer neurri hartu dira gastu hori egonkortzeko?

4. Zer bilakaera izan du, 2001etik hona, medikamentu generikoen errezeta kopuruak?

5. Merkatuan sartzen diren medikamentu berrien prezioa ezartzeko eskumena duen organoan esku hartzeko aukera izatea aldarrikatzen ari dira beste autonomia erkidego batzuetan. Aldarrikapen horiekin bat dator Osasun Departamentua?

Iruñean, 2003ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Reina Sofía ospitalean ematen diren kimioterapia tratamenduek duten kostu zehatzari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Reina Sofía ospitalean ematen diren kimioterapia tratamenduek duten kostu zehatzari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Tuterako Reina Sofía Ospitalean kimioterapia tratamenduak egiteko sala abian delarik, hauxe jakin nahi dugu:

1. Gastu horien guztien kostu zehatza.

2. Tratamendu horiek aplikatzeko zenbat profesional kontratatu den.

3. Kimioterapia tratamenduak egiteko sala zer-gatik erabaki zen laugarren solairuan, ginekologia eta pediatriako gaixoak dauden solairuan hain zuzen ere, jartzea? Sala hori jartzeko lekurik proposena dela uste al duzu?

4. Sala horretan egiten al da bestelako osasun teknikarik? Hala baldin bada, zein dira teknika horiek?

Iruñean, 2003ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Reina Sofía ospitalean kimioterapia tratamenduak behar dituzten gaixoei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Reina Sofía ospitalean kimioterapia tratamenduak behar dituzten gaixoei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

1. Nafarroako Erriberan bizi eta kimioterapia tratamendua behar duten gaixoen kopurua.

2. Aipatu gaixo horietako zenbatek jasotzen du tratamendua Tuterako Ospitalean?

3. Lehen galderan aipatutako gaixo horietako zenbat joaten dira Iruñeko ospitaletara kimioterapia tratamendua jasotzeko? Zeri zor zaizkio joan-etorri horiek guztiak?

Nola egiten dira joan-etorri horiek? Hau da, zer garraiobide erabiltzen da? Zer baldintzatan? Zenbat gaixo doa ibilgailu berean? Zenbat denbora ematen dute etxetik irten eta etxera itzuli arte?

4. Tuteran eta eskualde horretan bizi diren zenbat gaixok behar du joan Iruñera erredioterapia-saioak egitera?

Halakoetan, nola egiten dira joan-etorri horiek? Hau da, zer garraiobide jartzen zaie? Zer baldintzatan joaten dira? Zenbat denbora ematen dute etxetik irten eta etxera itzuli arte? Nork ordaintzen ditu joan-etorri horiek? Zenbat saio jasotzen du batez beste gaixo bakoitzak?

Iruñean, 2003ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontuen Ganberako Lehendakariak, 2003ko otsailaren 3an hartutako erabakibaten bitartez, Erakunde honetako 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31n haren

zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Kontuen Ganberako 2003rako plantilla organikoa

Lanpostua	Zenbat	Euskaraz jakitea	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen askea	Esklusi-bitatea.	Lanpostua	Maila osagarria	Osagarri berariazk.
Lehendakaritzako aholkularia	1		K	-	X		-		
Lehendakaritzako idazkaria	1		K	-	X		-		
Idazkari Nagusia	1		F	A	X	X	75		5
Auditorea	4		F	A		X	70		
Legelaria	1		F	A		X	45		
Kazetari-itzultzailea	1	X	F	A		X	20		
Informatikako goi mailako teknikaria	1		F	A		X	20		
Auditoretzako teknikari kontu-hartzailea	1		F	B	X	X	30		20
Auditoretzako teknikaria	11		F	B		X	30		
Auditoretzako teknikaria	1	X	F	B		X	30		
Administratzailea	1		F	C	X	X	33	12	
Administraria	4		F	C			23	12	
Administraria	1	X	F	C			23	12	
Mandataria	2		F	D			15	15	

F: Funtzionarioa

K: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2002-12-31n Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Luis Ordoki Urdazi	A	4	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	4	Auditorea	Jardunean
Fuertes Pérez, José	A	6	Auditorea	Zerbitzu bereziak
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	4	Auditorea	Jardunean
Sesma Masa, Francisco Javier	A	5	Auditorea	Jardunean
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	5	Informatikako Sist. Goi mailako tek.	Jardunean
Lanpostu hutsa	A		Kazetari-itzultzailea	
Ezquerro Royo, José Luis	B	4	Auditoretzako teknikari kontu-har.	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	4	Auditoretzako teknikaria	Zerb. bereziak prestakuntza
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, M. ^a Lourdes	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Martínez Cía, M ^a Isabel	C	7	Administratzailea	Jardunean
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	5	Administraria	Jardunean
Equiza Maquirrian, M ^a José	C	5	Administraria	Zerb. bereziak prestakuntza
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	4	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Zudaire Echávarri, A. Aurora	C	4	Administraria	Jardunean
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	4	Mandataria	Zerb. bereziak prestakuntza
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	4	Mandataria	Jardunean

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia dela-eta Zerbitzu Orokorretako buruak, Zerbitzu Jurdidikoen oniritziarekin, egindako txostenen ikusita eta ikusita baita ere Kontu-hartzailetzak emandako kredituen zertifikazioa, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1 Deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzea.

1.2 Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat, eta bereziki Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoko administrari entzat ezarritako eginkizunak beteko ditu eta hari dagozkion eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Haren eginkizunak ondokoak izanen dira:

– Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren organoari administrazio laguntza ematea, bai eta

herritarren erakundeetan aurkezten dituzten kexa-espedituen artxibo eta kudeaketa lanak eta antzekoak egitea ere, ekipo eta programa informatikoak erabiliz; halaber, noizean behin, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren barne-kudeaketari loturiko lanetan (kontabilitatea, langileria eta abar) laguntza eman beharko du.

– Jendeari ergibideak eta laguntza ematea (bertatik bertarakoa zein telefono bidezkoa), Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan kudeatzen ari diren gaiak direla eta.

– Esleitu edo agintzen zaizkion antzeko lan guztiak egitea, lanpostuak diren zereginekin lotuta baldin badaude.

1.3 Lanpostua C mailakoa da eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkio. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da berez, baina zerbitzuaren beharrezan arabera egokitu ahalko da.

1.4 Nafarroako administrazio publikoetan lanpostuak betetzeko erregelamenduko 10. artikuluari jarraiki egingen da lehiaketa.

1.4 Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria.- Hautagaien betebeharrak.

2.1 Nafarroako Parlamentuko langileen Estatu-tuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko, Kontuen Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) C mailako funtzionarioa izatea.

b) Goi Mailako Batxilergoko, Bigarren Mailako Lanbide Heziketako edo ofizialki haien baliokide den titulu baten jabe izatea.

c) Administrari lanpostu baterako edo gisako lanpostu baterako izendatua izana, baldin eta lanpostu hartako eginkizun nagusietako batzuk deialdi honetako 1.2 oinarrian adierazitakoak badira.

2.2 Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honetako 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak diraei-no. Hautapen-prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria.- Eskabideak.

3.1 Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izendeiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefona, halakorik bada.

3.2 Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskariari:

a) Deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3 Eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1 Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

4.2 Interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3 Aipatu epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena

emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4 Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5 Izangairik baztertu ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1 Merezimenduen lehiaketa epaitu behar duen epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: María Jesús Aranda Lasheras andrea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa.

Ordezkoa: M^a Isabel Beriáin Luri andrea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko lehen idazkaria.

Mahaikidea: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko lehen lehendakariordea.

Ordezkoa: M^a Isabel Arboniés Bermejo andrea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko bigarren lehendakariordea.

Mahaikidea: Enrique Mateo Sanz jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren aholkularia.

Ordezkoa: Aurelio Romero Serrano jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren aholkularia.

Mahaikidea: Juana Díaz de Rada Turumbay andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: M^a Jesús Martínez Orduña andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Mahaikide-idazkaria: Carlos Arroyo Izarra jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren aholkulari teknikoa.

Ordezkoa: Fernando Zulet Recalde jauna, Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua.

5.2 Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3 Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta mahai-buruak kalitatezko botoa izanen du.

5.4 Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1 Ondokoak balioetsiko dira:

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: 35 puntu bitarte.

b) Prestakuntza, irakaskuntza, ikerkuntza eta bestelako merezimenduak: 25 puntu bitarte.

Izangaiek alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak honekin batera doan baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duten unean.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiak ezin izanen du, inola ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezimendurik baloratu, ez eta atal bakoitzean zehaztu gehiengo puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

c) Txosten psikoteknikoa: 15 puntu bitarte.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak lehiatzaile bakoitzari buruzko txosten psikoteknikoa emanen du, horretarako probak egin ondoren. Txosten horren bidez, lehiatzaile bakoitza deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta ezaugarriei pertsonalki zein neurritan den egoki baloratuko du. Aipaturiko zerbitzuak txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari esleitzen dion puntuazioa loteslea izanen da lehiaketako epaimahai kalifikatzailearen zat.

d) Lanpostuko eginkizunei eta edukiei buruzko proba teknikoak: 25 puntu bitarte.

Bi ariketa idatzi egin beharko dira:

Lehenean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legeari, Administrazio eta prozedura Legeari, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuari zein Nafarroako administra-

zio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuari buruz izangaiek dakitena eta kontabilitate publikoko oinarriko kontzeptuak neurtuko dira.

Bigarrenean, ekipo informatikoen erabilerari buruzko proba praktikoa egingen da.

Lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak egokitzat jotzen badu, lehen ariketa egin eta ahoz defendatuko du izangai bakoitzak. Halaber, saio horretan izangaiaren merezimenduei eta lanpostuaren ezaugarriekiko egokitzapenari dagozkien hainbat puntu jorratzen ahalko dira.

Proba hau baztertzaila izanen da, eta, gainditzeko, gutxienez ere, 12,50 puntu lortu beharko dira.

Proba hau gainditzeko izangaiek lorturiko puntuazioa lehiaketako beste ataletan eskuratutako gehituko zaio, izangai bakoitzaren guztizko puntuazioa lortzeko.

6.2 Lehiaketa kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak jarriko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesatuek beren esku-bidearen mesedetan kalifikazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.3 Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzinatean handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hala ere berdinketak irauten badu, lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa puntuaziorik handiena lortu duen lehiatzailearen aldeko erabakia hartuko da.

7. oinarria.- Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1 6.2 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2 Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari emanen dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. oinarria.- Lanpostua hartzea.

8.1 Izangaia izendatu eta hamar egun naturalen epearen barruan hartu beharko du lanpostu

hutsaren jabetza, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

8.2 Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela hartuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria.- Agiriak hartzea.

9.1 Izangaiak aurkezturiko agiriak erretiratzeko ahalko dituzte, baldin eta aldezturik horretarako eskaera espresua egiten badute, non eta erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu ez den. Eskatera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da; epe hori kontatzen hasiko da izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro direnean.

9.2 Aurkezturiko agiriak erretiratu gabe aurreko idatz-zatian aipaturiko epea igaro ondoren, izangaiak horiek berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, hark galdu egingen du horretarako eskubidea, eta erretiratu gabeko agiriak suntsitu egingen dira.

9.3 Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak itzultzen ahalko zaizkio erreklamazio edo errekurtsoren izapidatzeak posible egiten duenean.

10. oinarria.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasitako hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasitako hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.

1) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdian eskatzen diren maila/talde eta titulazioko lanpostuetan: 1,50 puntu urte bakoitzeko.

2) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdian eskatzen diren maila/talde eta titulazioko lanpostuetan: 1,12 puntu urte bakoitzeko.

3) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, aurrekoak ez beste lanpostuetan: 0,37 puntu urte bakoitzeko.

4) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdikoak ez beste lanpostuetan: 0,30 puntu urte bakoitzeko.

– Oharrak:

1.a. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiari.

2.a. a) letra honi dagokion puntuazioa gehieze ere 35 puntukoa izanen da.

3.a. Lanaldi partzalean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4.a. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5.a. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon deneko edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari aritu deneko aldietako zerbitzuak egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa eta bestelako merezimenduak.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokide (10 ikastordu) bakoitzeko; gehieze ere, 10 puntu.

Oharrak:

1go. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

2gn. Ikastorduen iraupena agertzen ez duten ziertagiriak kreditu batekoak izanen bailiren baloratuko dira.

3.a. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak bailiren baloratuko dira.

4.a. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatutako sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea: 3 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, 2 puntu, epaimahaiak haien iraupenaren arabera baloratu beharrekoak

4) Deialdiak eskatzen duenaz beste titulazio eta ikasketa-espezialitateak: gehienez ere, 4 puntu.

5) Doktoretza edo lizentziatura deialdian eskaturiko titulazioan: gehienez ere, 2 puntu.

6) Epaimahaiak baloratu beharreko bestelako merezimenduak: besteak beste, hizkuntzak, sektore pribatuan egindako lanak, beka edo prestakuntza-egonaldiak, kontsulta egiteko, aholku emateko, parte hartzeko edo ordezkarietako organoetan parte hartzea: gehienez ere, 4 puntu.

b) idatz-zati osoari buruzko oharrak:

1.a. Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira idatz-zati honen barruan.

2.a. b) idatz-zati honetako gehieneko puntuazioa 25 puntukoa izanen da.

II. ERANSKINA

Izen-deiturak: _____

Adina: _____

NAren zenbakia: _____

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): _____

Telefono zk.: _____

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren _____(e)ko _____aren _____(e)ko erabakiaren berri izan dut –haren bidez, Nafarroako Arartekoaren bulegoko administrari lanpostu bat betetzeko dei egin da– eta hartan parte hartu nahi dut.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2003ko _____aren ____ (e)an

Nafarroako Parlamentuko lehendakari jauna

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko abenduan egindako bilerak**MAHAIA**

16 eta 30ean.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

9, 16, 18 eta 23an.

OSOKO BILKURA

10ean:

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa. Zuzenketa horiek aurkeztu dituzte Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Barrena Arza jaunak, Rubio Salvatierra andreak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Parti-

do Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektuari buruz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatztea.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

11, 12, 13, 17 eta 18an:

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezteko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatztea.

2002ko abenduan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda**2an:**

– Karguan aritzeagatik euren kideei sariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzeari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Adierazpen instituzionalaren proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Arrazakeriaren aurka Amnesty International egiten ari den kanpainari babesa emateari buruzkoa.

– AEM delakoaren idazkia, batzar orokorrerako gonbidapena egiteko.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, Ingurumen kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren agerraldia eskatzen du, aurkitutako putreei buruz Ekologis-

tak Martxan elkarrekin eginiko salaketari buruz informatzeko.

5ean:

– Foru parlamentari Fernando Barrena Arza jaunaren idazkia. Horren bidez, Batasuna Parlamentuko Taldea desegiteari buruz Mahaiak hartutako erabakia indargabetzeko eskatzen du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzarako deialdi publikoa ez egiteari buruz egindako galderaren erantzuna.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua. Gastugehikuntza edo dirusarrera-gutxitzea dakarten zuzenketak tramitera onartzeari buruz Nafarroako Gobernuak hartutako erabakia.

– Valtierrako Udalaren idazkia. Horrekin batera zenbait eraikinetako pitzadurei buruzko dokumentazioa.

– Valtierrako Udalaren idazkia. Elurra zapaltzeko makina bat erosteko hartutako zorra barkatzea eskatzen du.

– Bizkaiko Batzar Nagusien erabakia, txirringa erabiltzeko eskubidearen aldeko Amsterdamgo Deklarazioari atxikitzea.

– Arbizuko Udalaren erabakia, Bautista Barandallaren egoerari buruzkoa.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

9an:

– Eva Sánchez Mendazaren idazkia, Etxerat erakundearen izenean. Horrekin batera, Bautista Barandalla Iriarte aske uztearen aldeko sinadurak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Beste autonomia erkidegoek behi-azien-daren entzefalopatia espongiformea dela-eta emandako laguntzekin izan duten estrategiari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako lurreko telebista digitalaren lizentziak adjudikatzeko baldintzen pleguari buruz foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak eskatutako informazioa.

– Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren idazkia. Horrekin batera, Gizarte Segurantzak Nafarroan dituen kontuei buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eskatutako informazioa.

10ean:

– Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andrearen idazkia, Kontuen Ganberak Gazteluko Plazako lur azpiko aparkalekua eraiki eta zerbitzua ustiatzeko Iruñeko Udalak emandako administrazio emakidaren adjudikazio-lehiaketari buruzko txosten bat egin dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuko kideen eta administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko informazioa.

– Nafarroako Foru Komunitatearen eta Lan eta Espetxe Prestazioetarako Erakunde Autonomoa-

ren arteko Lankidetzta Hitzarmenaren proiektua, Iruñeko espetxeko hezkuntza gaiei buruzkoa.

– Julián Pérez Coboren idazkia, SOS Nafarroako langileen izenean, Koordinazio Operatiboko Zentroaren egoerari buruzkoa.

11n:

– Kantabriako Parlamentuaren idazkia. Horrekin batera, COPREPAren web orriaren proiektuaren kopia.

– Emakumea eta Ezgaitasuna Nazioarteko Biltzarreraren idazkia. Biltzarrerako eta komunikazioak aurkezteko arauak jakinarazten ditu.

– Castejónko Udalaren idazkia, Osoko Bilkurak generoko indarkeria dela-eta hartutako erabakia buruzkoa.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua. Nafarroako Gobernuaren erabakia.

– Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin, Figarolen antzemandako usain batzuen jatorriari buruzkoa.

– Goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

12an:

– Nafarroako 2001eko Kontu Orokorren azterketari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, lanean ari eta seme-alabak dituzten emakumei Nafarroan emandako laguntzei buruz Félix María Taberna Monzón jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Igor Arroyo Leatxe jaunak aurkeztutako zuzenketak.

13an:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren idazkia. Unibertsitate eztabaidako liga nazionaleko toki faserako gonbitea egiten du.

– “Nunca Mais” herritarren plataformaren aldeko deklarazio instituzional bat onestea. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren idazkia. Horren bidez, 2002ko abenduaren 24an manifestazio/elkarretaratze bat izanen dela jakinarazten du.

16an:

– Foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunaren idazkia. Horren bidez eskatzen du behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari buruzko lan bilera dagokion batzorde berezian egin dadila.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Kutzako kontseilarien ordain-sariei buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Navarra de Gestión para la Administración (NGA) izeneko enpresa bat sortzeko buruz eta Tracasako balizko salmentari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Talde Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariek egindako lanari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeko buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Talde Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Talde Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, TRACASaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– “Oztopo arkitektonikoak kentzeko buruzko Nazioarteko Topaketari” buruzko idazkia. Horrekin batera, topaketen programa eta aldizkarian izena emateko orria.

17an:

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren idazkia. Horrekin batera, kontseiluaren aktei buruz foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak eskatutako informazioa.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen idazkia. Nafarroako Gobernuaren eta NUPen arteko hitzarmenen gaineko txostena eskatzei buruzko espediente eta hori dela-eta Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Parlamentuaren artean izaniko komunikazioak.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen idazkia. Nafarroako Gobernuaren eta NUPen arteko hitzarmenen gaineko txostena eskatzei buruzko espediente eta hori dela-eta Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Parlamentuaren artean izaniko komunikazioak.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako zuzenketak.

18an:

– Lesakako Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia. Bautista Barandalla aske uztea eskatzen du.

– Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Felix José Puyo Rebollo eta Mariné Pueyo Danso jaun-andreek aurkeztutako zuzenketa.

– Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez baimena eskatzen du Biltzarreko ordezkariek Parlamentuen Hirugarren Mundu Forura joan daitezen.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Izquierda

Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia. Horren bitartez, Nafarroan merkataritza arautzen duen 11ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartu izanarekin ados ez dagoela adierazi du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordio batzuen betetzeari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen dituzten erabaki, foru agindu eta ebazpenen jakinarazpenak igortzen ditu.

– Arartekoaren idazkia, Parlamentuaren lehen-go egoitza zen Arrieta 12ko eraikinari buruzkoa.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenna. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako zuzenketak.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenna. Foru parlamentari Barrena Arza jaunak eta beste batzuek zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

19an:

– “2003. urtean etxebizitza alorreko jarduketak babesgarrietan aplikatuko den moduluaren ingoerari buruzko” aholkua emateko txostena, Kontuen Ganberak igorria.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenna. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenna. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Foru parlamentari Fernando Barrena Arza jaunaren eta beste batzuen idazkia. Horren bidez, Etxerat elkarteak joan den abenduaren 9an eginiko eskaria tramita dadin eskatzen du.

– Berriozarko Udalaren idazkia. Ezkaba mendiko sutea salatzen du.

20an:

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Familia ugariari buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Yosheba Sainz de la Higuieraren idazkia, zenbait gairi buruzkoa.

– Vida Digna elkartearen idazkia. Alargunen kolektiboaren egoera azaltzen du.

– Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Foru Dekretu Legegilea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina onesten duena, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Baroja museoa eraikitzeke aukerari buruz foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Toki Agenda 21en aplikazioari buruz foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, 2001. urtean krisialdian dauden enpresei emaniko laguntzei buruz eskatutako informazioa.

– ACS-ACR aldi baterako enpresen batasunaren 20. ziurtagiria, 2002ko iraila eta urriari buruzkoa.

– Francisco Siniega Sánchezen eta beste batzuen idazkia, Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, 157/02 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari uko egitekoa.

– Nafarroako administrazio publikoen monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

23an:

– Familia ugarietarako buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Familia ugarietarako buruzko Foru Lege proposamena. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Familia ugarietarako buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Familia ugarietarako buruzko Foru Lege proposamena. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzei buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketak.

– “Toki-Ona” Bigarren Hezkuntzako Institutuko Eskola Kontseiluaren eta Klaustruaren erabakia, euskara NUPen normalizatzeari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Iruñerriko hotel batean sarri bat agertu izanari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

26an:

– Nafarroako Kontseiluaren erabakia, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko irizpena emateari buruzkoa.

– Antonio San Martín Villanueva jaunaren idazkia, bere semeak Foru Ogasunean daukan egoera ekonomikoari buruzkoa.

– Catalunya Generalitatearen idazkia. Azterlan Autonomikoen Institutuaren kontsultarako web bat ireki izanaren berri ematen du.

– Senatuaren idazkia. Horren bitartez, Senatuaren Osoko Bilkuraren otsailetik ekainera bitarteko jardueren egutegia igorri du.

– Nafarroako administrazio publikoen monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboetarako buruzko Foru Lege proiektua. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa, Nafarroako Gobernuaren eta NUPen arteko hitzarmenen gaineko txostena eskatzeari buruzko espedientearen eta hori dela-eta Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Parlamentuaren artean izaniko komunikazioen gainekoa.

– Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena. Horren bidez, 2003. urterako lan programa onesten du.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako etorkinen goi mailako hezkuntzari buruzko azterlana.

27an:

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Fernando Barrena Arza eta Felix Puyo Rebollo jaunek aurkeztutako osoko zuzenketa.

– Pertsona zaharrak hartzei buruzko Foru Lege proposamena. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako administrazio publikoen monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboetarako buruzko Foru Lege proiektua. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektua. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren idazkia. Horren bidez, informazioa eskatzen du 18/2001 Foru Legeko 23 eta 24. artikuluen interpretazioari buruzko informazioa eskatzen du.

– Estatuko Fiskaltza Nagusiaren idazkia, Estatuko Fiskal Nagusiak azaroaren 28an prestaturiko txostenaren eskariaren gainekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Corellako Udalari emaniko laguntzei eta dirulaguntzei buruzko eskatutako informazioa.

30ean:

– Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua


premiatzen dira Europako Konbentziotik sortutako den tratatu berriari Hitzarmen Ekonomikoa protokolizatzea negoziatzea.

– Mozioa, Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako garapenari buruzko eztabaidan, Europa mailan, parte hartzeko eskubidea eta betebeharrak duela.

31n:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak aurkeztua.

– Pilar Aramburo González andrearen idazkia. Horren bidez, foru parlamentari kargua utzi duela adierazten du.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	